

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2609

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 18koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Villabonako farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Bada, datu ofizial horien azterketatik ondorioztatzen da Villabonako farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzea bidezkoa dela.

Horregatik, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautu zituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori), Villabonako farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzeko deialdia egiten da.

2.– 11/1994 Legearen 13. artikuluan ezarritako irizpideekin bat, iragarritako farmazia-bulegoa lurako udalerrian kokatu beharko da.

3.– Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabetekoa izango da.

4.– Aipatu eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsita aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak emandako idazkeran.

5.– 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoez gain, eskabideak honako helbide hauetan aurkeztu ahalko dira:

- Osasun eta Kontsumo Saila

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

- Osasun eta Kontsumo Saileko Arabako Lurralde Zuzendaritza

Olagibel kalea, 38

01004 Vitoria-Gasteiz

- Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza

Antso Jakitunaren kalea, 35
20010 Donostia-San Sebastián

- Osasun eta Kontsumo Saileko Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza

Errekalde zumarkalea, 39
48008 Bilbao

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.